



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

### EMAKUNDE

1. Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea..... 2
2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2020ko deialdia ..... 4
3. Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko ..... 6
4. Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak, eta/edo berdintasun-planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ehalbidetzeko ..... 8
5. Dirulaguntzak, 2020. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sensibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat ..... 10



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea**

2.- Araua

Ebazpena, 2019ko abenduaren 04koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena: 2019ko abenduaren 4 (EHAA 2019ko abenduaren 12a)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/12/1905779a.shtml>

Emate ebazpena: 2020ko uztailaren 22 (EHHA 2020ko abuztuaren 10a)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2020/08/2003201a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren esparruan eta Erakundearen helburuekin bat etorriz, 376.000 euro eman zitzaizkien emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei, horiek zuzenean eragin dezaten euskal gizartean emakumeek duten partaidetzan eta horien sustapenean.

Horrekin, nahitaezko zeregin bat egin zen, Emakundek programatutako jardueren osagarri; izan ere, gizartea sentsibilizatzea beharrezkoa da, funtsezko helburua lortu ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko deialdian, 139 eskaera aurkeztu ziren, eta 122ri eman zitzaien diru-laguntza, . Gainerako 17ak, ukatu egin ziren:3 eskabide emakumeen eta gizonen elkarte mistoak izateagatik (1. artikulua); 3 eskaera entitate onuraduna ez izateagatik (3.1 artikulua), eskaera 1 emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentzio-jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko laguntza lerrora bideratua (4.3 artikulua), eskaera bateko ekintza bat ez zen onartu puntuazio minimora ez heltzeagatik (10.2 artikulua) eta eskabide 10 uko egin dute.

Diru laguntza jaso duten elkarteak 40.000 bazkide dituzte, gutxi gorabehera. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren helburuak garatzen uzten duten jarduerak egiteko diru-laguntzak dira.

Lortu dira aurreikusitako emaitzak, bai egindako programen kalitateari dagokionez, bai diru-laguntza horren onuradun direnen kolektiboari dagokionez. Gure balorazioaren arabera, bete da deialdi horretan aipatutako adierazlearen aurreikuspena. 2020rako helburu memorian aurreikusten zen 100etik 140ra eskabide aurkeztea. Diru-laguntza jaso dutenak 139 elkarte izan direla ikusten da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Elkarteetara emandako diru-laguntzetako kopurua	100-140	122
Elkarteetara diruz lagundutako ekintza kopurua	100-140	184
Elkarteen gida-liburuaren guztizkoari buruz diruz lagundutako elkarteak	%75	%45



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2020ko deialdia**

#### 2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2020. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena: 2019ko abenduak 10, (EHAA 2019ko abenduak 17):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905754e.shtml>

Emakida: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/09/2003863e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Berdintasunaren aldeko politikak garatuko baditugu, aztertu beharra daukagu zer genero-harreman eta -rol dauden egun emakumeen eta gizonen artean eremu guztietan dauden ezberdintasunen oinarrian. Era berean, berdintasunaren arloko ekintza berritzaileak espermentatu behar dira, ondoren politika orokorretan sartu ahal izateko. Politikak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenek genero-alderdiak aztertu eta lantzeko beharrezko tresnak behar dituzte, berdintasunerako bidean aurrera egiteko neurriak planteatzeko.

2020ko ekitaldian hiru beka-mota dauzkagu oraindik:

- 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa ekarriko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea.
- 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko diskriminazioa jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboetan; bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzeari eta segurtasunari dagokienez.
- 3. mota: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta emakumeen lidergoa eta ahalduzko politiko, ekonomiko eta soziala erraztuko duten eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen lagunduko duten ekimenak eta estrategiak bilatzea.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezzen ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko ekitaldian gertatutakoa:

- 1. motako bekan: 15 eskabide izan ziren; horietatik bat izan zen onuradun, 14 ordezeko eta bati ezezkoa eman zitzaion pertsona fisikoa ez izateagatik.
- 2. motako bekan: 9 eskabide jaso ziren; bat izan zen onuradun, 6 ordezeko eta 3ri ezezkoa eman zitzaion
- 3. motako bekan: 8 eskabide jaso ziren; onuradun bat izan da, 6 ordezeko eta bati ezezkoa eman zitzaion.

Beka bakoitzaren iraupena hamar hilabetekoa da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Beken indarraldian, bilera batzuk egin dira (2020ko azaroan, 2021eko otsailean) mota bakoitzeko beken onuradunekin, aldi horietan egindako lanen kontrola, segimendua eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitutakoan, ikerlan amaitua analizatu eta balioetsiko da, emaitzak eskuratuko dira eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina neurtuko dira.

2020an amaitu da hiru motetako beketan 2019. urteko deialdian egindako ikerlanen balorazioa, eta ikusi da bete dituztela deialdian planteatu ziren helburuak, eta lagundu dutela berdintasunaren bidean aurrera egiten mota bakoitzeko beken alorretan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka kop.	3	3
Eskabide kop.	50	32
Prestakuntza jasotako emakume kop.	6	5
Prestakuntza jasotako gizon kop.	1	2
Prestakuntzan interesa izan duten emakume kop.	70	83
Prestakuntzan interesa izan duten gizon kop	5	6

--



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enpresa eta erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko**

#### 2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpenaren bidez, 2020. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko deialdia egiten eta dirulaguntza horiek arautzen dira, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatu ditzaten, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, minimis laguntzen araubidea baliatuta.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: Ebazpena 2019ko abenduak 10ekoa (EHAA, 2019ko abenduak 19):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905807e.shtml>

Dirulaguntza emateko ebazpena: 2020ko ekainak 19, (EHAA, 2020ko uztailak 6):

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002624e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta erakunde pribatuei dirulaguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo erakunde pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.

Programa honetako diru-hornidura 200.000,0 eurokoa da.

Enpresak inplikatu nahi ditu programak, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, legez behartuta ez dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko, eta, gutxienez, hogei ordu eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sentsibilizazioa/prestakuntza emateko.

Orobat, dirulaguntza jasotzen duten enpresek konpromisoa sinatzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakunde bihurtzeko, hau da, enpresetan dauden desberdintasunak gutxitzeko jardura jarraituak egiteko: besteak beste, aukera-berdintasuna sustatzea langileak kontratatzerakoan eta langileen sustapen eta prestakuntzan; bitzita pertsonala, familiarra eta lanekoa



uztartzeko neurriak ezartzea; sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurrea hartzea; enpresaren produktuetan berdintasuna sartzea eta abar.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina

44 erakunde aurkeztu ziren, eta deialdiaren irizpideak aplikatu ostean, 40ri eman zitzaien dirulaguntza; agortu egin zen aurrekontu-kreditua. 4ri dirulaguntza ukatu zitzaien, baldintzak ez betetzeagatik. Baina, 40 adjudikaziodun horietatik 3k uko egin zioten COVID-19ak eragindako ziurgabetasun-egoeragatik, eta, beraz, azkenik, 36 erakundek jaso zuten dirulaguntza.

Dirulaguntza esleitu zitzaien erakundeen artean, 21 Gipuzkoakoak dira, 2 Arabakoak eta 13 Bizkaikoak. Jarduera eremuari dagokionez, 28, zerbitzu-enpresak dira, eta 8, industria-enpresak. Guztira, 987 gizonentzat eta 981 emakumerentzat izan dira onuragarriak haietako bakoitzean egindako diagnostikoa eta plana, eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.

Diruz lagundutako erakunde guztiek jende askori ematen die zerbitzua, eta pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak inpaktu biderkatzaile handia izango duela etorkizunean, bai eskainitako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak lortzeko orduan dauden desorekak murrizteari dagokionez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako enpresen kopurua	13 eta 18 artean	36 enpresa



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak, eta/edo berdintasun-planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ehalbidetzeko**

2.- Araua

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko abenduaren 17ko Ebazpena, 2020ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena. Dirulaguntza horiek emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa emateko bideratuko dira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Dirulaguntzaren deialdia egin eta arautzen duena:

<https://www.euskadi.eus/2020/udaletxeak/web01-tramite/eu/>

Dirulaguntza ematen duena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/06/2002428e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei, eta mankomunitateei behar den laguntza teknikoa ematea, 2020. urtean zehar emakumeek eta gizonek toki-eremuan duten egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko.

Deialdi honetan lehentasuna ematen zaie berdintasunerako diagnostikoa eta/edo plana lehen aldiz egiten duten udalerrri, kuadrilla edo mankomunitateei, udalerrri guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak gara ditzaten. Era berean, lehentasuna ematen zaio mankomunitateka, kuadrillaka eta udalerrrika taldekatutako proiektuei, politika publikoek ahalmen handiagoa eta oihartzun handiagoa baitute haien ingurunean. Halaber, lehentasuna ematen zaio berdintasun-teknikariaren zuzeneko kontratazioari edo kontratua luzatzeari.

Deialdiaren zenbatekoa 720.000 eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

42 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 6k ez dute laguntzarik jasoko, (2 atzera egiteagatik eta 4 uko egiteagatik).





Dirulaguntza hauek ematen dituen 2020ko maiatzaren 28ko Ebazpenaren arabera, 37 udalerriri eta 2 mankomunitateri eta kuadrillari dagozkien 40 laguntza eman ziren, guztira 395.635,09 euroko zenbatekoarekin. Emandako laguntzen ondorioz:

- 20 laguntza diagnostikoei, berdintasun-planei eta ebaluazioei dagozkie, eta horien artean:
  - o 2 lehen diagnostikoei eta berdintasun-planei dagozkie.
  - o 18 II., III., IV. edo V. diagnostikoak, berdintasun-planak eta/edo ebaluazioak egiteari dagozkie.
- 20 laguntza diagnostiko eta programa sektorialak egiteko dira. Diagnostiko eta programa horiei esker, emakumeen eta gizonen egoera ezagutu ahal izango da udalaren jarduera-eremuetan, eta premia zehatzetara hobeto egokitzen diren programak garatu ahal izango dira. Diruz lagundutako 20 proiektu horietatik, 5 genero-indarkeriaren arloko protokoloak edo planak egiteari edo ebaluatzeari dagozkie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	33	36
Udalerrri onuradunen kopurua	30	33 udalerrri + 2 mankomunitate, kuadrilla eta/edo udalerrri-multzo



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dirulaguntzak, 2020. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2020an dirulaguntzak emateko deialdia egin eta dirulaguntza horiek arautzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905876e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerez sentsibilizatzeko eta halakoak prebenitzeko abian jarritako programak erakunde publikoek ez ezik irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek ere gauzatzen dituzte. Hortaz, egoki da indarkeria horri buruz sentsibilizatzeko eta hura prebenitzeko proiektuak, programak, ekintzak edo estrategiak abiarazten dituzten erakundeei laguntzea.

2020ko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- a. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
- b. Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
- c. Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
- d. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
- e. Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
- f. Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rola aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
- g. Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
- h. Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistemarik onena denez gero.
- i. Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.



- j. Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
- k. Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
- l. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.
- m. Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
- n. Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
- o. Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezten lortzea.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren exekuzioa, eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina

Dirulaguntza hauetara, 240.000 € bideratu dira.

Deialdi honetan, eutsi egin zaio proiektu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoari, eta 12.000 euro izango dira; gehienez ere bi projektutarako dirulaguntza emango zaio erakunde bakoitzari —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko.

2019an 88 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 42 projekturi eman zitzaizkien dirulaguntza. 2020an, berriz, 80 proiektu aurkeztu dira, eta 43k jaso dute dirulaguntza.

Proiektu horiek oso positibotzat jo ditu Ebaluazio Batzordeak, deialdi honen helburuak eta aurreikusitako gizarte-eragina kontuan hartuta. Elkarrekin emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako sentsibilizazioaren eta prebentzioaren alde lan egiteko interesa dutela nabaritu da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	40	43